
Zerbitzuen kontsumoari buruzco alerta

Iruña, 2026ko irailaren 21a

ConsumoNavarra
KontsumoaNafarroa



VIVANTA hortz-kliniken itxiera: zer egin kaltetutako kontsumitzailea bazara

VIVANTA taldeko hortz-klinikak (VIVANTA DENTAL, SLU eta CLÍNICA VIVANTA, SLU) itxi dituztela eta, honakoa jakitea komeni da:

Erne! VIVANTA taldeko hortz-kliniketan (VIVANTA DENTAL SLU eta CLÍNICA VIVANTA SLU) tratamenduak egiteko zain zeuden kaltetuek kontsulta egiten ahal diote Nafarroako Gobernuko Kontsumo Zerbitzuari, itxiera horren aurrean, erreklamazioa nola egin jakiteko.

CLÍNICA VIVANTA, SLUren erabiltzaileek kontuan izan behar dute, **2026ko irailaren 15etik** aurrera -hau da, merkataritza-sozietatearen konkurtso-deklarazio arruntaren iragarkia BOEn argitaratzen den egunetik aurrera- konkurtsopeko hartzekodunek (horien artean, kontratatutako zerbitzuak eta tratamenduak ez jasotzeak kaltetutakoak) **hilabeteko epea** dutela beren kredituak konkurtso-administrazioari jakinarazteko.

Konkurtso-prozedura hori Madrilgo Auzialdiko Auzitegiko Merkataritza Arloko 12. plazan izapidetzen ari da, eta konkurtso-administratzaile izendatu da FTI & Partners Corporate Recovery Spain SLP merkataritza-sozietatea (IFZ: B87068326), zeinaren ordezkari diharduen Pedro Juan Valelli Xampeny ekonomialariak (posta-helbidea: Paseo de la Castellana, 35, 6. solairua, 28046 Madril; laneko telefonoa: 91 827 96 26; helbide elektronikoa: concursos@ftiandpartners.es).

Informazio garrantzitsua! Konkurtso-administratzaileari bidali beharreko komunikazioan, datu hauek jaso behar dira:

1. Hartzekodunaren **datu pertsonalak eta harremanetarako datuak** (tratamenduaren kostua ordaindu duen pertsona).
2. Kredituaren jakinarazpen-**data** (gogoratu konkurtso-administrazioari **2026ko urriaren 15a baino lehen** bidali behar zaiola).
3. **Norbere izenean edo hartzekodunaren ordezkari gisa** jarduten duen.
4. Erabiltzailea/pazientea **identifikatzeko datuak**.
5. Zerbitzua edo finantzaketa (baldin eta finantzatu bada) kontratatu den **eguna**.
6. **Kredituaren zenbatekoa**.
7. Kredituaren hartzekodunaren **sinadura** edo, hala badagokio, haren ordezkariarena.
8. Kredituari buruzko **dokumentazio** guztiaren kopia (aurrekontua, faktura, CLÍNICA VIVANTA SLUrekin egindako kontratua, finantzaketa-kontratua, eskurako ordainketen agiriak, etab.).

VIVANTA DENTAL, SLU enpresako erabiltzaileek kontuan izan behar dute enpresa hori, oraingoz, ez dagoela konkurtso-prozesuan. Beraz, itxierak kaltetutako erabiltzaileei gomendio hauek ematen zaizkie, tratamenduak **finantzaketarik gabe edo finantzaketarekin** ordaindu dituzten kontuan hartuta.

Nola egin judizioz kanpoko erreklamazioa, ordaindu diren eta jaso ez diren tratamenduen dirua itzultzeko?

Finantzaketarik gabe ordaindutako tratamenduak:

Lehenenik: aurkeztu aurretiazko erreklamazioa enpresari, tratamendua amaitzeko edo kontratua suntsiarazteko eskatuz, eta horrekin batera, eskatu itzul ditzala egin gabeko tratamendu-zatiari dagozkion eta ordainduak dauden kopuruak.
Bigarrenik: judizioz kanpoko erreklamazio horri erantzuten ez badiote, hasi erreklamazioa Nafarroako Gobernuko Kontsumo Zerbitzuan. Hori egitean, aurretiko erreklamazioa eta kontratatutako eta emandako zerbitzuen egiaztagiriak ere aurkeztu behar dira.
Hirugarrenik: auzibidera jo. Erreklamazioa 2.000 eurokoa edo hortik beherakoa bada, ez da behar ez abokaturik ez prokuradorerik. Elkargo profesionalek doako justiziaren eskaera bideratzen eta izapidetzen ahal dute.

Finantzaketarekin ordaindutako tratamenduak:
Lehenenik: aurkeztu aurretiazko erreklamazioa enpresari, tratamendua amaitzeko edo kontratua suntsiarazteko eskatuz. Horrekin batera, eskatu itzul ditzala egin gabeko tratamendu-zatiari dagozkion eta ordainduak dauden kopuruak
Bigarrenik: jo finantza-erakundearen bezeroarentzako arreta-zerbitzura, hurrengo kobrantzak geldiarazteko eskatzera. Jasoko ez diren zerbitzuengatik ordaindutako kuotak itzultzeko eskatu behar da. Finantza-erakundeak 30 egun baliodun ditu erantzuteko.
Hirugarrenik: finantza-erakundeak erantzuten ez badu, edo arazoa konpontzen ez badu, Espainiako Bankuaren erreklamazio-zerbitzura jotzen ahal da. Hori egitean, datu pertsonalak, aurretiazko erreklamazioa eta kasuarekin lotutako gainerako dokumentazioa aurkeztu behar dira.

Garrantzitsua! Gorde kontratua, fakturak eta ordainagiriak.
Eta, halaber, gorde eskainitako eta egindako tratamenduari buruzko dokumentazio guztia.